

**BOROBIL TEATROAK AURKEZTEN DU:**

**ANARTZ ZUAZUA**

**ASIER SOTA**

**JULEN VEGA**

# **ALIBABA ETA 40 LAPURRAK**

**ZUZENDARIA: ANARTZ ZUAZUA**





## ALI BABA ETA 40 LAPURRAK

Guztiok aski ezagun dugun istorioa, inoiz ez bezala kontatuta.

Ali Baba, Persiako herri batean bizi den egur biltzaile txiroa da. Egurra biltzen basoan dabilen batean, zarata izugarri batek beldurtuko du. Zuhaitz baten adarren artean ezkutatu eta 40 lapur ikusiko ditu mendian dagoen harkaitz erraldoi baten aurrean gelditzen. Lapurren buruzagiak "ireki zaitetz sesamo" esatearekin bat, kobazuloa ireki egingo da. 40 lapurrek ostutako urre zakuak kobazulo barruan utzi eta alde egindakoan, Ali Babak, harkaitzaren aurrean jarri eta buruzagiaren hitzak errepikatuko ditu. "Ireki zaitetz sesamo". Eta kobazuloa ireki egingo da. Barrura sartu eta aho zabalik geratuko da egur biltzailea. Urrezko txanponez betetako ehundaka zaku daude kobazuloan. Ali Babak ez dio ordea aberastasunaren distirari burua nahasten utziko. Zuhurtziaz jokatu eta zaku gutxi batzuk hartzea erabakiko du. Lapurrek ez dezaten atzeman norbaitek kobazuloko sekretua jakin duela. Etxera iritsi eta zoriontsu bizitzeko moduan izango dira emaztea eta bera hortik aurrera. Baina abentura ez da hor bukatuko. Ali Babaren anaiak, Kassimek, sekretua jakingo du. Eta honek, anaiari ezer esan gabe kobazuloan sartu eta zaku guztiak lapurtzen saiatuko da. Kassim harrapatu egingo dute ordea, 40 lapurrek. Eta hortik aurrera, kobazuloko sekretua jakin duena atzematen saiatuko dira. Ali Babak, bere emazte eta lagunekin lapurren atzaparretatik ihes egitea izango du helburu.

Lortuko al du?

Hori deskubritzeko antzokira joan eta abentura nola bukatzen den ikusi behar da!

Mila aldiz kontatuta dagoen istorio hau ez da inoiz modaz pasatzen. Erakargarri bihurtzen duten berezko osagaiak ditu. Gure asmoa oraindik erakargarriago egitea da. Istorioa antzetzeko moduarekin lortzen dugu hau. Hiru aktore eta 3 x 2 metroko alfonbra bat nahikoa dira, Persiako hiri bateko bazarra, basoa, etxe bateko lorategia, lapurren kobazuloa, edo istorioak dituen hamaika kokapen desberdinak irudikatzen. Baita 20 pertsonai baino gehiago antzetzeko ere.

Borobil antzerki taldeak, familia guztiari eskaini nahi dio *Ali Baba eta 40 lapurrak* antzezlanarekin umorez gozatzeko aukera. Antzerki talde hau jendea antzerkira eramateko helburuarekin sortu berri da. Horretarako argi du, kalitatezko antzerkia eskeini behar duela, antzerki komertziala izan arren. Produkto borobilak izan behar dute taularatzeko aukeratutakoak. Oraingoan familia guztiari zuzendutako klasiko honekin datoz, baina beste proiektu ugari estrenatuko ditu datozen urteotan. Orain arte beste produktora batzuentzat lan arrakastatsua burutu dituen Anartz Zuazua da taldearen sortzailea. Berak zuzenduak izan dira, *Kutsidazu bidea Ixabel*, *Xabinator* edo *Xomorroak* bezalako lanak. Telebistan eta zinean ere eskarmentu handia du Zuazuak, bai aktore eta bai zuzendari lanetan.

**IZENBURUA: ALI BABA ETA 40 LAPURRAK**

**IRAUPENA: 60 minutu**

**HIZKUNTZA: EUSKARAZ EDO GAZTELERAZ**

**IKUSLEGOA: 5 URTETIK GORAKO HAUR ETA GURASOAK**

**AKTOREAK: ANARTZ ZUAZUA, ASIER SOTA ETA JULEN VEGA**

**TESTUAREN EGOKITZAPENA: ANARTZ ZUAZUA, ASIER SOTA ETA**

**NAGORE ARANBURU**

**JANTZIAK: MONICA CRISTOFOLETI**

**ARGIAK: CARLOS SALABERRI**

**MUSIKA ORIJINALA: IGNACIO PEREZ MARIN**

**ZUZENDARIA: ANARTZ ZUAZUA**

**HARREMANA: borobilpro@gmail.com Telf: 656759557**




# ANIZZUMA

Donostiako Antzertin, Madrilgo W. Layton antzerki laborategian eta Pariseko J. Leqoc antzerki eskolan gauzatu ditu bere ikasketak. Ordutik aktore eta zuzendari bezala egin du lan. Antzerkian Orain, Arteszena, Madrilgo Teatro de la Zarzuela, Ados, Txalo, Vaiven, Gorringo...bezalako taldeekin lan egin du. Azken hauekin *Kutsidazu bidea Ixabel* lan arrakastatsua zuzendu zuen. *Xomorroak* antzerki lanarekin 2006. urteko Max sarietara izendatu zuten. Telebistan, *Jaun eta Jabe* izan zen bere lehenengo lana, baina ordutik gauza asko egin ditu. Horien adierazle dira *Wazemank* saio ezagunean aktore eta zuzendari moduan egin dituen lanak eta 2011ean estrinatu den *Carrero Blanco* tvmovi-an ikusi. Zinean ere badu eskarmentua, Film askotan parte hartu baitu, horien artean *Rabia* edo ta *Celda 211* aipatu ditzakegu. Horrez gain, berak zuzendu eta elkarlanean idatzi zuen *El nunca lo haría* laburmetraia, 200 jaialdian parte hartu duena eta 40 sari eskuratu dituena.




# ASIERSCIA

Eskarmentu handiko aktorea da, eta horren adierazle dira antzerkian, telebistan eta zinean egin dituen lanak. Nahiz eta publiko zabalean oraindik oso ezaguna ez izan, poliki poliki izena hartzen ari da. Urte askotan haurrentzako antzerkia egin du, hala nola, *Xomorroak*. Horrez gain, *Lapur Zuloa* K. Zabalak zuzendutako antzezlanean eta *Xabinator A*. Zuazuak zuzendutakoan ere ikusi ahal izan dugu. Telebistan, *Wazemank* edo *Finlandian* saioetan parte hartu du. Zinean, berriz, *Eutsi A*. Gorritibereak zuzendutako pelikulan. Asier antzerki irakaslea ere bada.



## JUEN VEGA

Aktore gazte honek, Zurriola antzerki eskolan ikasi zuen. Bere irakasletariko batek, A. Zuazuak, lehenengo lan profesionala egiteko aukera eman zion. *Natatxa* Txalok ekoiztutako antzerki lana izan zen hori. Ordutik, ikasketa unibertsitarioa, aktore heziketarekin batera egin du. Horrez gain, publizitatean ere egin du lan.



**BOROBIL**

